

## Manex Erdozaintziren erakarmena eta eragina

Bada Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak argitaratzen duen liburuska-bilduma apain bat, "Bidegileak" izenekoa. Horietako bakoitza euskal kulturagintzan nabarmendu den eta arrasto luzea utzi duenen bati eskainita dago, horren irudi-ereduak agertzeko era labur eta lauan. Bidegileetakoa dugu Manex Erozaintzi-Etxart ere. Bildumako 24.ean (1995) Itxaro Bordak, Manexen bizitzaren berri laburra eman eta horren obra poetiko-literarioa balioztatu ondoren, honetara amaitu zuen bere aurkezpena: *"Bizirik zegoenean, Manexek bere lanaren oihartzun eskasa seinatzen zuen. Ordu da, menturaz libertateari hainbat kantu ondu zizkion poetaren neurria estimatzen eta aztertzen hasteko"* (20 or.).

Ez dakit noiz burutuko zuen Itxarok bere idazkia, seguruenik 1994a baino lehen, Manexen heriotzako hamargarren urteurrenean haren oroi-garrizat eta omenez egindako ekitaldien aitzin, ez baitu horien aipurik bere idatzian. Ekitaldi horietan aski nabarmen agertu zen jendeak Manex aurkitua zuela, hura hil ondoren bederen, agian haren bizitzan aurkitu ez zuena.

### **BIZITZAKO ERAGIN SAKONA**

Manex ez zen arrabots handikoa ez bere lagun eta lankideen artean eta ez bere lanean; inolako zaratarik gabe bete ohi zuen bere egitekoa; ixila zen haren eragina ere. Baina nabari zenezakeen egin eta eragin

sakoneko gizona; Ibarlako egun lainotsuetako euri gozo eta geldia bezalakoa. Talde-dinamikan gidatzaile eta sustatzailearena egin behar zuenean (fraidetan nahiz herriko lagunen artean), taldekoenganako begirune handiz bete ohi zuen bere betekizuna, horien solasa behartu gabe, ahotsa goratu gabe. Guztiz neurtuak izan ohi ziren haren hitzak, elkarriketan esku hartu behar zuenean, baina inoiz hanka sartu gabe.

Gazteen hezitzaile eta irakasle egonarri eta pazientzia luzekoa, Okzitaniako Tolosan eta Etxarriko eskolan; azterketa- eta gogoeta-taldeen laguntzaile eta eragile nekaezina; fraide-elkartearen arduraduna (Tolosan eta Donapaleun), eta horien frantziskotar probintziako ministroa —horretan hil zen, lehen sei urtetako “ministerioa” burutzear zekalarik—; apaizen artean gidari eta hizlaria; Elizak gaurko munduari eta gure gizarteari eskaini beharreko mezu eta erantzunaz beti kezkatua kristau-elkartean—*Fededunak* taldearen idazkaria izan zen, eta beste zenbait talderen suspertzaile\* —. Eta tartean poeta bero eta idazle zorrotz, Euskal Herriaren gatazka eta arazo politiko, sozial eta kulturaletan engaiatua. Horra, Manex!

*Herriz Herri* aldizkariaren zuzendaria izan zen gainera, horren sortzetik (1980) eta bera hil zen arte, prentsa herritar, hurbileko eta xumearen aldeko apostua egina zuelarik, aldizkariaren lehen editorialean zioenez: bakoitzaren herriko, auzoko, eskualdeko berriak eman nahi ditu: “*Des choses secondaires ou même dérisoires à l'échelle de ce monde, mais qui conditionnent pourtant notre vie quotidienne à la maison et au village, à l'école et au travail*”. Lehen zenbakian ageri da Manex, aldizkariaren zuzendari eta editorialaren sinatzaile; ondorengo

---

\* Euskal Herriaren askapen sozial eta nazionalen engaiaturiko hainbat kristau jende ezkertierrek bere eguneroko ekintza bizia eta bere fede-esperientzia bateratzeko maiz nabari zuen arazoari —kontradikzioari?— erantzuteko kristau-elkarte herritarren mugimendua, *Eliza eta Herria* izenekoa, sortzeko ahaleginean parte bizia hartu zuen 1975. urtean, *Fededunak* taldearen eta bestelako bestelako zenbaitenen erantzuna motz geratzen zelakoan. Mugimendu hark bere hartan ez zuen gorputz hartu, baina haren ildotik etorri ziren gero Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarren batasuna (1976), *Herria-2000-Eliza* aldizkaria (1977), Euskal Herriko Apaizen Koordinakundea (1976), Herriarekin taldea.

zenbakietan baztertxoren batera ezkutatu zen aldizkariaren arduradunaren izena. 1984ko apirilaren 29an hilda, artean hilabetez jarraitu zuen *Heriz Herri* astekariaren zuzendari, Ekainaren 7ko zenbakirarte.

Literatura bezala bere pentsamendua ere ixilean joan zen onduz eta landuz Manex... Bi liburu itxuraz oso xumeak utzi zituen argitaraturik: *Hinki-Hanka* (1978) eta *Gauaren atzealdean* (1982); hainbat aldizkari-tan argitaratu zituen bestelako idazlan ugariz gain, jakina. Erresuminik gabe eta apaltasunez, baina baita etsipen modukoren batez, bazen bai bera nonbait kexu, bere liburuen oihartzun eskasagatik, Luzien Etxezaharretari 1983an egindako aitortenaren, Itxaro Bordak berak jasotakoaren, arabera (13. or.): “*Hinki-Hanka poema bildumaren oihartzunik ez diat izan, ez Elkar editorialaren aldetik ez irakurleen aldetik; berdinsu gertatu zitakan Gauaren atzekaldea nobelatxoarentzat... Halako huts kultural bat.*”

Argitaraturikoaz gain beste idazlan anitz utzi zuen, ordea, Manexek argitaratu gabe: Poesia, gogoetak, sermoiak; “Pedagogia berriaz” liburua ere bai, burutu gabea.

“... *presaka batean idazten dugu Ipar Euskal Herrian hainbeste garrantzi izan duen gizon eta fraide honen aipamen urjentziazko bat*”, zioen Artasok *Argia* astekarian (1.014. zenb., 1984-V-6, 28. or.), Manexen heriotzaren berri eman eta horren irudia egitean.

### **HERIOTZONDOKO ERAKARMEN ZABALA**

Orain, Xabier Lasaren liburu hau aurkeztean, haren heriotzondoko erakarmena eta eragina nabarmendu nahi ditut. Horixe aitortuz hasten da, hain zuzen, Xabier Lasa bera. —Ez dut haren biografiaz, ez haren literaturaz eta ez harekiko oroitzapen pertsonalez solasik egin nahi—.

Hamasei urte dira, beraz, Manex hil zela; eta Donapaleuko frantzikotarren etxera doazen bisitariek ongi nabarituko dute oraindik haren presentzia bizi eta iraunkorra, ez jangelan dauden oroigarrien bidez bakarrik, eta bai Donapaleu herriko eta Ipar Euskal Herriko lagunengatik oroitzapenean ere.

Baina haren oroitzapenak ezezik, haren eraginak ere indarrez jarraitu du hamabost urteotan. Horren lekuko da bereziki “Manex Gogoan” taldea. Manexen heriotzako 10. urteurreneko ekitaldiak antolatzeko sortua, haren testigu jarraitu nahi izan du. Talde horren eskutik joan ziren, hain zuzen, 10. urteurreneko ekitaldiak, Manexen hilondoko lekukotasunaren eta eraginaren adierazle pozgarri bezain txundigarriak gertatu zirenak. Hiru izan ziren ekitaldi nagusiak: 1. Hitzaldiak, edo Manexen adiskideen elgarretaratzea (1994ko irailaren 23an), Donapaleuko Herriko etxean, non hogeit bat lagunek hari buruzko lekukotza beroa eman bai zuen, bakoitzak berea —horiek denak Maiatz taldeak eman zituen argitara *Manex gogoan. Donapaleuko hitzaldi eta lekukotasunak* izeneko argitalpen xume bezain maitagarrian (1995)—. 2. Kultur jaialdi gogoangarria (1994ko urriaren 14ko gauean), Donapaleuko frantziskotarren elizan eta etxean, non Iparraldeko eta Hegoaldeko hainbat lagun bertaratu baitzen Manexen omenez, horren poema abestu edota errezitatuak entzutera, kantari ezagun hainbaten eta berriagoren ahotatik —bi kasetetan argitaratu zituzten kanta-errezitaldiok, eta ETBek ere jaialdiaren emanaldia eskaini zuen—. 3. Festa-egun pozgarria hurrengo igandean, Donapaleuko fraideen etxean, Manexen hainbat lagun bildu zuenak, haren oroitzapena ospatzeko —lehenago, maiatzaren 5ean beste jaialdi bat egina zuten haren omenez, beraren Ibarla sorterrian—.

Zorionez Manexen lan poetikoa ez zen hautsetan ahantzirik gelditu, autorea hil ondoren. Eta bizitzan argitaraturiko bien lagungarri eta haien osagarri etorri ziren beste biok: *Herri honen erraietan* liburuska eta *Bizitza pilpirak* handiagoa (*Nafarroari poema irekia* eta *Herri honen erraietan* barnean zituela); gainera *Hinki-Hanka*-ren bigarren argitalpena ere bai (1995). Adierazia dugunez, beste bat ere utzi zigun burutu gabe: *Pedagogia berri bati buruz*, oraindik argitaratzeke dagoena. Haren erakarmen-eraginaren adierazgarri da, baita ere, Euskal Idazleen Elkarteak, Iparraldeko idazleetako bati urteko oroigarria eskaintzean, Manex Erdozaintziri eskaini izana, hain zuzen.

Manex liburu-zalea zen oso, eta liburutegi polita zuen eratua. Horretan eta Manexen beraren artxiboan oinarriturik, haren izeneko kulturgunea dute antolatua Donapaleuko frantziskotarren etxean: oroi-

garri eta museo ttipiaz haratago, kultur suspergarri izan nahi duena. Joan Joxe Iturrioz arduradunak maitasun eta arta handiz zaintzen du hori, horren berri jakin eta horretaz baliatu nahi dutenei gogoz erakutsiz eta gidaritza eskainiz. Hortxe landu eta zohituriko fruitua da, izan, Xabi Lasak hemen eskaintzen digun liburu hau. Horren inguruan antolatu ohi dituzte *Otsaileko Ostegunak* izeneko hitzaldiak azken urteotan.

Manex bizirik zelarrik, haren zenbait poema kantarien ahotatik entzun eta gozatu izan genuen. Artasok aipaturiko heriotzako oroigarrian gogorarazten digunez, “Kantariak ere erabili dituzte Manex Erdozainziren hitzak. ‘Ortziken’ emanaldi polemiko hura egin zutenek, ‘Gure Bidea’ taldeak, ‘Nekez Ari’ taldeak eta Pantxoa eta Peiok”. Bereziki ezaguna eta hunkigarria da azken horiek abesturiko Manexen “Sinesten dut” poema.

Bost urte geroago Maite Deliartek oroitzapen bihotzekoa eskaini zion Manexi: “Frantsiskano eta poeta” idazki ttipian (*Herria*, 1999-IV-29, 6. or.). “Haren olerki batzu kantu bihurtuak ezagunak dira, hala nola ‘Sinesten dut’, Peio eta Pantxoarena, ‘Neurriak’, ‘Amaren sabelean’, ‘Nori ez’, ‘Errepikak’, besteak beste. Ezin nezake hitzez erran haatik zendako Manexen olerkiek hunkitzen nauten, gogo-bihotzen sentimenduak ele bidea hartzean makurtzen baitzaizkit. Poeta eta frantsiskanoaren izpirituak halako oihartzun berezia badaukala ote nere barne bizian!”-

Harrigarria bezain pozgarria da, ordea, Manexen poemek hura hil ondoren ere izan duten erakarmena euskal kantariengan. Horren adierazpenik argiena aipaturiko gaualdi-jaialdi hartakoa izan zen; baina 10. urteurreneko ospakizunak ipinitako “obligaziotik” landa, kantari batek baino gehiagok izan ditu maite eta ditu hautatu Manexen poemak bere gisa musikatu eta abesteko. Berriki Lur Ezpalak ikuskizunean eman dizkigu Txomin Hegi eta taldeak Manexen 22 olerki gai eta oinarriztat hartuta: “*Idazlearen hautua errazki egin genuen’ (...)* Izan ere, hiru antzerkilariek Erdozaintzi-Etxarten obra hagitz gustukoa zutela aitortu zuten, ‘gaurkotasun handia baitu eta poesia erakargarria eta sinplea baita’” (*Euskaldunon Egunkaria*, 1999-02-25, 41. or.). Manexen obra omendu nahi izan dute “Lur ezpalak” ikuskizunean.

Argitaldarien Manexen poemak argitaratu eta kantariek abestu izan dituzten bezala, Manexen irudia hitzalditan, lekukotasunetan eta idazlanetan hainbatek gogoratu duen bezala, Manexen bizitza eta haren pentsamendua ere aztertuak dituzte urte hauetan. Bada idatzirik Manexen biografia, beraren idatzietan oinarritua (argitaratzekoa). Bitartean Agurtzane Ortiz hitzkuntzalaria bere tesia lantzen ari da, Manex Erdozaintziren obra poetikoari buruz. Itxaro Bordak bere liburuskan kezka beterik eginiko eskabideek izan dute, beraz, erantzunik: Biografia, pentsamenduaren ikerketa, literatur obraren azterketa kritiko... Horiek denak eskura izango ditugunean, Manexen irudia egiazki distiratsua agertuko zaigulakoan nago.

Manexen erakarmen pertsonala ezezik hark euskal kulturari izan duen garrantziaren aitortzen ozena da, berriki Ipar Euskal Herriaren barnealderako Oztibarreko 2. mailako ikastolari haren izena eman izana: *Manex Erdozaintzi-Etxart Kolegioa*. Horren neurria erakusten du hasieran aipatu dugun liburuak ere, “Bidegileak” sailekoak; Manex “bidegilea” era anitzeko bidea egiten ari zaigu euskal kulturgintzan.

Bihotzekoak jota hil zen Manex duela 16 urte; berak zeraman bihotz handia lehertuta. Donapaleuko hilerrian dago ehortzia. Hamasei urteren buruan erran dezakegu izan dela eta badela Manex Erdozaintziren zinezko kultur fenomeno, esplikatzeko erraza ez dena, Ipar Euskal Herrian nahiz Hegoaldean. Non dago gakoa? Elkartasuneko bidegintza maite izan zuen Manexek: ez bakarkakoa, kolektiboa bai; ez elitearena, herriarena baino. Pazientzia handiagoa eskatzen du, ordea, horrelako lanak, berantago erakutsi ohi baitu bere fruituen distira. Hortxe dago agian gakoa!

#### *XABIER LASAREN OBRA HAU*

“Herri ukatuaren poeta” deitu du Manex Itxaro Bordak, hasieran aipaturiko liburuskan: “Herrikotasun aitortu horrengatik agian, Manex Erdozaintzi-Etxart, Herri Ukatuaren Poeta, ez da beharko lukeen heinean edo zabaltasunean kontsideratua...” (16. or.). Herri ukatuaren askatasun bidean horren bidelagun izan dela erantsiko nuke nik, bera-

ren poesia sarritan askatasun-otoitz eta kanta bihurtu duena. Garai hartako (1970-1980) Euskal Herriko borroka politiko, sozial eta kulturaz, eta berezikiago Ipar Euskal Herriko *Mendeberri* izeneko ikasleen mugimenduz ari zelarik, honela idatzi zuen Manexek aipaturiko *Pedagogia Berriaz* liburu argitaragabea, zalantzarik gabe bere poesiaren ezaugarrietako bat nabarmen utziz: “Hauien (borrokalarien) inguruan eta herri honen erraiek, kantuak eta poemak sortzen dira askatasunaren ametsa ez dadin betiko gal xendera hetsietan. Azken urte hauetan kantaldi eta poema abertzaleek arrakasta handia ezagutu dute herrixka guzietan, poema batzuk otoitz bihurtzeraino”.

Obra poetikoaz gain, iritzi-artikulu eta saiakera ugari idatzi zuen Manex Erdozaintzik, Herriaren askapen-bidean ekintza eta gogoeta kritikoa bateratuz: horietako anitz argitaratuta daude, besteren batzuk oraindik ez. Horietan ageri den pentsamendua aztertu digu, hain zuzen ere, Xabier Lasak. Teologiako lizentziatura-titulurako lan akademikoa da, orain moldaturik eta partez bakarrik argitaratzen dugun hau. Gasteizko Teologi Fakultatean aurkeztu zuen 1998an, eta epai-mahai-koen ahobateko oniritzia jaso.

Jakin dakigu, ikerlanaren balio akademikoaz gain, tesina irakurri eta epaitu zuten irakasleek oso interesgarriz hartu zutela Xabierren liburua, gaiaren aldetik begiratuta ere. Niri baino lehenago legokio haietako bati liburu honen aurkezpena egitea: Tesinaren zuzendaria izandako Joxe Arregi irakasleari, alegia. Adiskide dudan horrek gaizki hartuko ez duelakoan, eta Manexenganako neure atxikimenduak eraginda, eta liburu honen autorearekin berarekin dudan hurbiltasunagatik, ezin izan diot ezezkorik esan horren eskabideari.

Nafarra dugu autorea, Berriozarkoa. Euskalduntze eta euskarazko alfabetatze-lanetan aritua da, bere aitzinsolasean kontaktzen digunez. Azken urteotan Iruñako Elizbarrutiko lanaz gain —euskarazko itzultzailea eta euskarazko katekesi eta pastoraltzako sailekoa da—, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ari da, Erljioaren Pedagogiako eta Erljioen Fenomenologiako irakasle.

Liburuko aitzinsolasean kontatu digu, baita ere, nondik nora izan zuen Manexen ezagutza, eta nolatan gertatu zitzaion hain erakargarria

gizona bere tesinarako gaitzat hautatzeraino. Horregatik neure aldetik ez dut inolako arrazoirik gaineratu beharrik, Manex Erdozaintziren pentsamenduari buruzko ikerlan honen egokiera eta egokitasunari buruz.

Goraipatu nahi ditut, ordea, berak izan zuen asmo ederra eta burutu duen ikerlan neketsua. Ez zen eginkizun erraza; izan ere, Manexen artxiboa irakurri, sailkatu eta katalogatetik hasi behar izan zuen. Orain argitaratzen dugun hau autorearen tesinaren zati bat besterik ez da, haren pentsamenduaren azterketa sistematikoa, alegia. Beste atal handia du ikerlanak, non haren artxiboko dokumentu eta idazki ez-literarioen katalogoa eskaintzen baitigu. Hori ere, ezagutu eta erabili nahi lukeenaren eskura ipintzeko asmoa dugu, argitalpen mugatuaren bidez. Manexen pentsamendua nolabait sistematizatzeko, beraz, haren idazlan sakabanatu eta zatikakoetatik abiatu behar izan du Xabier Lasak.

Xabier Lasaren lana irakurri ondoren, Herri ukatuaren poeta ezezik, horren pentsalari eta teologo ere izan zela argi ikusi ahal dugu: oso aintzat hartzekoa, gure autoreak hartu duen bezala. Manex ez zen teologo profesionala, psikologoa eta pedagogoa baizik. Baina bere kristau fedezko esperientzia, Euskal Herri eta gizarte honen baitan grinaz eta minez bizia, gogoetatzeko eta adierazteko barne-premia nabari izan zuen. Hark loraturiko “askapen-teologia” biziak ekarpen zinez aipagarria egiten digulakoan nago.

Manexen biografia sintetikoa eskaintzen digu aurrenik Xabik, bizi-tzan eta esperientzian eta laneko eta ekintzako harremanetan aurkitu zuelako hark bere pentsamendu kritikorako iturria. Haren bizi-ingurune sozial, kultural eta eklesiala deskribatu eta hark grinaz bizi izandako garai hartako Nazioarteko eta Euskal Herriko gertakari politiko eta ideologiko nagusienak nabarmendu dizkigu autoreak, horiexetan dagoelako sustraiturik haren pentsamendua. Askapen-teologiaren izaera eta metodoari buruzko eztabaidatan sartu gabe, horren ildoan ipini zuen bere gogoeta teologikoa Manexek, bere fedezko esperientzian eta fededunen komunitatean zohitua.

Pentsamendu kritikoa da Manexena, Elizari buruz, ezarritako sistema politiko, sozial eta pedagogikoari buruz. Ez du bere puntu kritikoa



galtzen, ordea, sistema hori zuzentzeko, aldatzeko edota iraultzeko ahaleginean diharduten mugimendu eta taldeen lana eta jokabideak aztertzean ere.

Xabi Lasaren lan honetan bereziki goraipatu nahi nuke Manexen pentsamendua sistematizatzeko ezezik, hori sintetizatzeko egin duen ahaleginaga. Azken “konklusioetara” bildu dituen puntuetan irakurleak begiratu azkarrez atzeman ahal izango ditu Manex Erdozaintziren pentsamenduaren ildo nagusiak.

Paulo Agirrebaltzategi